



EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO

EUSKO LEGEBILTZARREKO MAHAIARI

Behean sinatzen dugun **Euzko Abertzaleak** taldeko legebiltzarkide **Maribel Vaquero Monterok** eta **Aralar** taldeko bozeramaile **Aintzane Ezenarro Egurbidek**, indarrean dagoen Erregelamenduaren babesean, **Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburu Isabel Celaáren AGERRALDI-ESKARIA** egiten dute, “Bake Hezkuntzarako material didaktiko berrituen inguruan” azalpenak eman ditzan **Hezkuntza Batzordearen aurrean**:

ZIOA

Urtarrilaren 12an Hezkuntza sailburu Isabel Celaak material didaktiko berritua aurkeztu zuen komunikabideen aurrean egindako ekitaldi baten. Material hori egiteko orduan, Hezkuntza sailak ez du hezkuntza komunitatearekin ezta Legebiltzarreko gainontzeko taldeekin ere hartu-emanik izan, egin asmo zituen aldaketak nola egingo ziren azaltzeko eta ahal den neurrian adosteko. Gainera, aurkezpena komunikabideen aurrean egin zuen Legebiltzarrean aurkeztu aurretik, nahiz eta jakin gaiak ahalik eta adostasun zabalena behar duela.

Hori dela eta, hurrengo agerraldi eskaria egiten dugu:

AGERRALDI ESKARIA

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburu Isabel Celaaren agerraldi eskaria egiten du azal ditzan, Hezkuntza batzordearena aurrean, zein aldaketa egin dituen *Bakerako Urratsak* unitate didaktikoan eta *Historias que nos marcan* liburuxkan, bai eta zein helbururekin egin diren aldaketok.

Euzko Abertzaleak

Aralar

Maribel Vaquero Montero

Aintzane Ezenarro Egurbide

Gasteizen, 2011ko urtarrilaren 20an

